

Mike Bidart



Euskal jatorriko abokatua AEBetan

Los Angeles konderriko abokatu ezaguna da Mike Bidart. Kaliforniako Chino herrian sortu zen eta bertan bizi da, euskaraz lagunartean. Bertsozale eta kantari, Renoko *Center for Basque Studies*-en Aholku Batzordeko kide da.



ZALDI ERO ©

MIEL A. ELUSTONDO

Belaunaldi berrietakoa da Mike Bidart. Los Angeles konderrian sortu zen, Ponoman, Chinotik hamar minutura. Ospitalean mundura. «Irailaren 15ean, 1950ean. Ospitalean. Chinon orduan ez genuen ospitalerik eta, ordukotz, haurrak ez ziren etxeetan gehiago sortzen. 10 urte lehenago, menturaz 40 arte edo, etxean sortzen ziren haurrak. Ni, ospitalean, moderno bainaiz». Lau aldiz izan zen haurdun ama, baina garaiko gaitz eta ezinak bizi izan zituen. «Anaia gehiena, John Bernard, sei hilabeterekin hil zen. Bigarren, bizi dudana anaia sortu zen, Beñat, 44an. Artean bagenuen beste mutiko bat, hilik sortua. Gero, ni, 50ean sortu nintzen».

Euskaldun Kalifornian

Beñat Bidart izan zuen aita, Ibarlan sortua, 1910ean. «Etxearen izena, Loiola». Ama, aldiz, Chinon berean jaio zen 1920an, nahiz eta nafarrak izan gurasoak. «Luxi Lasa –Lucien Marie–, zuen izena gure amak. Aita Aldudekoa zuen, Premondonekoa, eta ama, berriz, baztandarra, Erratzu-

koa. Iputzanea etxekoa. Aitaren arreba Graziana izan zen lehena etortzen, Ibarla-Loiolako alaba bakarra. 1923an bezala etorri zen Los Angelesetarat. Etxe garbitzen egin zuen lan, hemengo *movie-star*-en etxeetan. Badakit Mary Picford-en etxea garbitzen hasi zela gure izeba Graziana. Gamarten-Aorlako semea –Irigoien, Manex–, egin zuen senarra. Behi deitzen egiten zuen lan honek». Arrebaren bidea eginez heldu zen Chinora Mike Bidarten aita, eta osabak egiten zuen lan berdina hartu zuen, *letxerian*. 1930. urtea zen.

Euskal giro betean hazi zen Mike. «Ni haurra nintzelarik, baziren gure ai-

taren lagun batzuk –hamar bat, edo dozena–, edozein festa zelarik beti elgarrekin kantuz aritzen zirenak. Ttikittik euskaldun kantuak entzuten nituen, eta maite. Baina ez nituen ikasi, bat edo bi baizik; elizako kantuak, hain segur». Aldizkari bat ere izan zuten etxean euskaraz. «Heldu zen astekaria, *Herria*, apezek egiten zutena, uste dut Larre zen buruzagia. Gaztetan

etortzen zen gure etxera eta hura leitzen nuen. Maite nuen, gustu banuen. Bazen kalendarioa ere, lodiko bat, *Herrria*-k egiten zuen hura ere. Egun guziko bazen hosto bat, hosto hura kentzen zenuen eta bazenuen erran bat, xista bat edo zernahi. Amak laguntzen ninduen euskaraz, eta hola. Gero, ama hil zen, 49 urte zituelarik, bularreko kantzerrarekin. Nik 19 urte nituen eta aitarekin bizi nintzen etxean, bakarrik. Anaia lanean ari zen, kanpoan, eta ni eskolan ari nintzen. Etxera etortzen nintzenean, aita oraindik lanean ari zen. Gero, biak afalduta, buruz buru, kantuz hasiko zen aita, niri kantuak erakusten». Bizian ahanntzi ez duena.

«Euskal odola zahartu egin da Kalifornian»

«Aita guk eskolan segitzeko saiatu zen eginahalean»